# EBI BARRIAK

elizbarrutiko ikastetxeak

**EBIren informazio buletina** — **2021eko urtarrila**

# Hurbil egoteko modu barri bat




EBIk komunikatzeko eta hezkuntza komunitate osoari heltzeko modu barri bat aurkezten deutsue, bere 16 ikastetxe, ikastola eta Lanbide Heziketako eskolen informazio esanguratsuenagaz.

Hileroko buletin honen bitartez, EBI sarearen eta bere ikastetxeen gaurkotasuna islatzen saiatuko gara, baita ezarritako planteamentu barritzaileak, sariak, aintzatespenak edo hezkuntza ereduaren ardatzak be. Halaber, Elizbarrutiko Ikastetxeak, sare garden bezala, komunikazio kanal barri bat eskaintzen deutso hezkuntza komunitateari, irakasle, familia edo ohiko lankide diran garrantzizko agenteengana heltzeko.

Gure nahia EBIko 16 ikastetxeek egunero martxan ipintzen dabezan ereduak eta lana zuek hobeto ezagutzea da.

---

## Metodologia, proiektuak, baloreak... Zergaitik da EBI hezkuntza sare desberdin eta bereizia?

EBI sareak hezkuntza bereizgarria eskaintzen dau, metodologia barritzaileenekaz eta ikasleak ikaskuntzaren erdigunean jarriz. Nabarmentzen doguz, hainbat ikastetxeen adibideekaz, EBI sarearen irakaskuntza bereizgarri egiten dabezan proiektuak eta hezkuntza erreferente bihurtu dabenak.

GEHIAGO IRAKURRI




**ERANTZUN ERAGINKORRA KORONABIRUSAREN ERRONKARI.** Hezkuntza sare berritzaile batek erronkei erantzun behar deutse. EBI, pandemiak eragindako hezkuntza eskakizunei egokitu da.

---




### Artxandape Ikastolak STEAM Euskadi Saria lortu dau

Ikastolak proiektu berritzaileenaren STEAM Euskadi saria jaso dau, ikasgaiak lanbide bihurtzen dauazan metodologia barri bati esker.

GEHIAGO IRAKURRI




### Otxarkoaga Lanbide Eskola, Bilbao Balioen Hiria saria

Otxarkoagako Eskolaren Modern Art Festival proiektuak ikastetxeen saria irabazi dau, gazteen gaineko estereotipoak hausten laguntzeagatik.

GEHIAGO IRAKURRI



### Somorrostro eta San Felix Ikastola, Kudeaketa sariak

Muskizko Ikastetxeak eta Ortuellako Ikastolak Euskalit Kalitaterako Euskal Fundazioak emoten dauazan Kudeaketa Aurreratuko sariak jaso dabez.

GEHIAGO IRAKURRI